

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

AUKERAK, GIZARTERATZEAREN EUSKAL AGENTZIA

4715

EBAZPENA, 2025eko urriaren 24koa, Aukerak, Gizarteratzearen Euskal Agentziako zuzendaria-rena, administrazio eta zerbitzuen zuzendariordetzako lanpostua izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzen duena.

Aukerak Gizarteratzearen Euskal Agentziak erabaki du bere Zerbitzu Zentraletan hutsik dagoen Produkzio eta Prestakuntzako Zuzendariordetzako lanpostua (kodea: 512516; dotazioa: 2), eranskinean adierazita dagoena, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 102.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Enplegu Publikoaren Zuzendaritzak aldeko txostena eman ondoren, izendapen askez betetzeko deialdia iragartzea. Hona hemen deialdiaren

OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartzeko baldintzak.

1) Deialdian parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako karrerako funtzionarioek, bai eta EAEko Administrazio Orokorrari lotutako zuzenbide pribatuko ente publikoetako karrerako funtzionarioek ere, baldin eta lanpostuen zerrendan ezarritako baldintzak betetzen badituzte (eranskinean daude zehaztuta). Langile horiek deialdian parte hartu ahal izango dute, beren administrazio-egoera edozein dela ere, honako hauek izan ezik:

– Eginkizun-gabetze irmoan dauden funtzionarioek, egoera horrek irauten duen bitartean.

– Norberaren interesagatik edo familia elkartzeagatik borondatezko eszedentzian egonik, lanera itzultzeko eskatutako gutxieneko denbora (2 urte) igaro ez duten langileek.

2) Parte hartu ahal izango dute beste administrazio publiko batzuetako karrerako funtzionarioek, irakaskuntzako eta Justizia Administrazioko karrerako funtzionarioek, bai eta erakunde sanitarioetako estatutupeko langile finkoek ere, baldin eta lanpostuen zerrendak berariaz aurreikusten badu horrelako langileek betetzeko aukera, eta, beraz, berariaz identifikatuta badago dagokion kodearen bidez, ebazpen honen eranskinean zehaztutakoari jarraikiz.

Langile horiek deialdi honetan parte hartu ahal izango dute, baldin eta lanpostuen zerrendan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen badute eta zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran edo beren jatorrizko administrazioan plaza erreserbatuta duten administrazio-egoeran badaude, salbu eta eginkizun-gabetzea, behin-behinekoa edo irmoa, 6 hilabetetik beherakoa bada.

Bigarrena.– Eskabideak.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

EAEko Administrazio Orokorrean eta haren organismo publikoetan jardunean ari diren karrerako funtzionarioek EIZU enpleguaren atariaren bidez egin ditzakete eskaerak, Jakina bidez eta Interneten bidez, helbide honetan: Funtzio Publikoa-Eusko Jaurlaritza-Euskadi.eus.

Gainerako izangaiek Aukerak Gizarteratzearen Euskal Agentziara bidaliko dituzte eskabideak, erregistro elektronikoen bidez.

Hirugarrena.— Betekizunak eta merezimenduak.

Ebazpen honen eranskinean, 512516 kodeari (2. dotazioa) dagokion Produkzio eta Prestakuntzako Zuzendariordetzako lanpostua betetzeko lanpostuen zerrendan eskatzen diren baldintzak ezartzen dira. Era berean, lanpostu horren funtzioen eta zereginen arabera balora daitezkeen merezimenduak eta gaitasunak ezartzen dira.

Parte hartzeko eskabidearekin batera, «curriculum vitae» aurkeztuko da, eta, bertan, datu pertsonalak eta zein talde, azpitalde edo kidegotakoa den zehazteaz gain, datu hauek ere jasoko dira:

- a) Tituluak.
- b) Betetako lanpostuak, bai Administrazio Publikoan eta sektore publikoan, bai enpresa pribatuan, lehiatzen den lanpostuaren antzeko funtzioak eta zereginak dituztenak.
- c) Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna.
- d) Jasotako edota emandako prestakuntza-ikastaroak.
- e) Hizkuntzen ezagutza.
- f) Eskatutako lanpostuari esleitutako eginkizun eta atazekin lotuta, egokitzen jotzen duten beste edozein merezimendu eta eskumen.

Eskabidearekin batera, eskatzen diren betekizunen eta alegatutako merezimenduen egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte izangaiek, salbu eta EAEko Administrazio Orokorreko Langileen Erregistroan badaude.

Pertsona deitutako lanpostuaren eginkizunetara egokitzen dela bermatzeko, deialdia egin duen organoak egokitzen jotzen dituen bitartekoak erabili ahal izango ditu alegatutako merezimenduak egiaztatzeko, elkarriketa pertsonalaren edo probaren bidez, edo Giza Baliabideen Zerbitzuko organo teknikoei txostenak eskatuz.

Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bete beharko dira eskatutako baldintzak, eta esleitutako lanpostuez jabetu arte eutsi beharko zaie. Parte hartzeko baldintzak betetzen jarraitzen ez duten parte-hartzaileek ezin izango dute esleitutako lanpostuaz jabetu.

Laugarrena.— Ebazpena.

Deialdi hau Aukerak Gizarteratzearen Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen baten bidez ebatziko da, gehienez ere hiru hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Lanpostuaren esleipendunak esleipenaren ebazpenean zehazten den egunean bertan jabetu beharko du lanpostuaz. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko zuzendariordetzako eta lurralde-ordezkaritzetako titularren lanpostuak izendapen askearen bidez bete behar direnez, lehiaketa bidez edo karrerako funtzionario izateko prozesu batean lortu duen titulartasuneko lanpostua gordeko zaio interesdunari.

Ebazpen hori arrazoitu egin beharko da, adieraziz hautagaiak deialdian eskatutako betekizunak eta zehaztapenak, izendapena egiteko gaitasuna, bai eta monografian ezarritako lanpostuko

eginkizunak eta zereginak betetzeko egokitasuna ere, merezimenduen konparazio baten bidez (eta, hala badagokio, elkarrizketaren edo probaren emaitzaren konparazio baten bidez) gainerako hautagaiekin, halakorik balego.

Deialdia hutsik geratu ahal izango da, baldin eta hautagaietako batek ere ez baditu betetzen lanpostuaren baldintzak, edo hautagaietako bat bera ere ezin bada egokitzen jo, deitutako lanpostua betetzeko merezimendu eta gaitasun nahikoak ez dituelako.

Bosgarrena.— Errekurtsoak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 24a.

Aukerak, Gizarteratzearen Euskal Agentziako zuzendaria,
SOFÍA ARCHELI MESONERO.

ERANSKINA

Deitutako lanpostua: Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendariordetza.

Kodea: 512516.

Dotazioa: 2.

Kidego eta eskala: A1 azpitaldeko kidego eta eskalak (EAP), edozein administrazio publikotako A1 azpitaldeko funtzionarioak (X02EU) eta A taldeko espetxe-administrazioko kidego eta eskalak (X01AP).

Lanpostu mailako osagarria: 29.

Berariazko osagarria: 0-A.

Lantokia: Zerbitzu zentralak.

Herria: Vitoria-Gasteiz.

Hizkuntza eskakizuna: 3.

Derrigortasun-data: –

Ezagupen berezituak: –

Eginkizunak: Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendariordetzari dagokio Aukerak agentziaren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketa koordinatu, ikuskatu eta egikaritzea eta haren giza baliabideak eta bitarteko materialak antolatu eta kudeatzea, bai eta entearen lege-aholkularitzako eta kontratazio publikoko lanak egitea ere.